




HARROBIA FUNDAZIOKO KARTA FUNDAZIOANALA

I. IDAZPURUA. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua- Fundazioa osatzea, Fundazioaren izena eta iraupena

Ekainaren 17ko 12/1994 Legearen arabera, eta indarrean dauden araudietako gainerako xedapenen arabera, Fundación Ikastolen Lanbide Etxea-Harrobia Fundazioa izeneko fundazioa osatzen da.

Ikastolen Lanbide Etxea-Harrobia Fundazioa irabazteko asmorik ez duen erakundea da eta Fundazioaren ondarea interes orokorra duten helburuetarako (esku artean dituzun Estatutuen 3. artikuluan deskribatzen dira) erabiliko dute, Fundazioaren sortzaileek hala nahi izan dute eta.

Estatutu hauek, notario aurrean eramaten direnetik, Karta Fundazionala izaera izango dute 12 hilabetez, eta epe honetan, Patronatuak fundazioaren xedea garatuko du, bereiziki Fundatzaileen xedeekin bat datozen ahalik eta entitate gehienek

2. Artikulua- Araubide, izaera eta gaitasun juridikoa

Fundazioaren osaketaren eskritura Fundazioen Erregistroan sartu ostean, Fundazioak izaera juridiko propioa eta burujabea du eta gaitasun juridikoa eta ekiteko gaitasuna erabatekoak izango dira; muga bakarrik fundatzaileek fundazioa osatu zutenean egin zuten, eta Estatutu honetan dagoen, nahiazen adierazpenean ezarritakoak izango dira. Horretaz gainera, aplikatu daitezkeen legezko xedapenek ere ezarriko dituzte mugak, ekainaren 17ko 12/1994 Legeak, hain zuzen ere.

Horren ondorioz, eta Protektoratua jakinaren gainean behar bezala jarri ostean, edozein bitarteko erabiliz, edonolako ondasun higigarri edo higiezinak eta eskubideak hartu, kontserbatu, eduki, ezarri, besterendu eta zergapetu ditzake; hainbat ekimen edo kontratu egin ditzake; maileguak jaso eta ordaindu ditzake; Epaitegi, Auzitegi eta Erakunde publiko eta pribatuaren aurrean (ordenamendu juridikoak ezartzen duena errespetatuz) edonolako ekintza eta salbuespen mota eginez, gobernu-bidea edo auzibidea erabili ditzake.

3. Artikulua- Fundazioaren helburuak

1.-Ikastolen Lanbide Etxea-Harrobia Fundazioaren helburua Lanbide-heziketa eta Euskarazko Prestakuntza eta Enplegu jarduerak sustatzea da, eta baita enpresak, -Gizarte-ekonomia oinarritzat dutenak nagusiki-sustatzea ere, betiere, horien jarduera euskaraz garatzeko konpromisoa badute.

2.-Helburu zabal horien barne jarduera zehatzago eta garrantzitsuagoak ere izango dira, hona hemen jarduera horien zerrenda:


- a) Prestakuntzarako eta Enplegua eta Enpresak -Gizarte-ekonomia oinarritzat dutenak nagusiki-Sustatzeko Zentroa ezartzea.
- b) Derrigorrezko irakaskuntzaren osteko irakaskuntzan euskarak duen egoera ikertzea.
- c) Euskara lan munduan barneratzeko aukerak zein diren ikertzea.
- d) Euskal Herriko ekonomia garatzen laguntzen duen pertsona langile eta ekintzailearen profila zein den zehaztea, ikuspegi euskaldunetik abiatuta. Profil hori Hezkuntzako euskal curriculumean sar dadin sustatzea.
- e) Ikastolen sektoreak laneko Prestakuntza eta Orientazio munduan presentzia handia izan dezan, dauden edo egongo diren ekintza guztiak batzea.
- f) Laneko prestakuntza teknikoaren maila guztietan egiten diren prestakuntzarako proposamenak babestea.
- g) Haien helburuen artean, langileekin, hornitzaile zen bezeroekin Euskarara komunikabide legez erabiltzea helburu duen Enpresa ekintzak lagundu eta sustatzea.

4. Artikulua- Helburuak garatzea

Fundazioak bere helburuak garatzeko orduan, egokia deritzon eran jardun dezake, bestelako entitate edo erakundeetan parte-hartzea barne, eta muga bakarrik fundazioaren eskutitzean, Estatutu hauetan eta, betiere, Legeetan ezarritakoak izango dira.

5. Artikulua- Helbidea

Fundazioaren helbidea Bilboko Martin Barua kaleko 12. atarian izango da. Patronatuak, sozietatearen



P 5745654 C



helbidea/aldaketa erabaki dezake eta, hori eginez gero, Fundazioen erregistroan helbide aldaketaren berri eman behar du. Halaber, Patronatuak fundazioko helburuak betetzearen ondorioz sortzen diren beharren arabera ezartzen diren establezimendu, ordezkaritza edo bulegoen egoitzak zein diren zehazteko gaitasuna du.

6. Artikulua- Lurralde-esparrua

Fundazioak Euskal Herrian garatuko ditu jarduerak, nagusiki.

7. Artikulua- Onuradunak

- 1.- Patronatuaren ikuspegiaren arabera, Fundazioaren zerbitzuak jasotzea merezi duten pertsona fisiko zein juridikoak izan daitezke zerbitzu horien onuradun.
- 2.- Fundazioak, onuradunak hautatzeko orduan eta interes orokorren barruan, objektibotasuna eta partzialtasun eza duten irizpideak erabili behar ditu, inolako diskriminaziorik gerta ez dadin. Horrekin jarraiki, Fundazioaren helburuen eremuan, beren lehentasunezko jarduera Euskaraz aurrera eramateko konpromisoa hartzen duten pertsona fisiko zein juridiko guztiak izan daitezke onuradun.
- 3.- Dena dela, onuradunak hautatzeko orduan, Fundazioak partzialtasun eta diskriminazio eza izan behar ditu irizpide.
- 4.- Edozein arrazoi objektibo dela-eta, onuradun kopurua mugatu behar bada, Fundazioaren Patronatuak egin behar du hautaketa eta erabaki hori ezin da atzera bota. Patronatuak onuradun izan nahi duten pertsonen merezimenduak, beharrak, gaitasun ekonomikoa eta onura izateko aukerak edo bestelako ezaugarri objektiboak izan behar ditu aintzat. Betiere, fundazioaren edo fundazioko organoen aurrean, inork (ez taldeka, ez banaka) ezin du onura horietaz (eman aurretik) gozatzen dituela argudiatu eta ezta pertsona jakin bati eman diezaioten ezarri ere.

8. Artikulua- Argitara ematea

Balizko onuradunek eta interesatuta dauden pertsonen fundazioaren ekimenen berri izan dezaten, Patronatuak Fundazioaren helburu eta jardueren inguruko behar adina informazio eman behar du argitara.

II. IDAZPURUA. PATRONATUA

1. ATALA. OSAERA ETA ESKUMENAK.

9. Artikulua- Patronatua

Patronatua Fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkaritza organo gorena da. Fundazioko helburuak aurrera eramateko beharrezkoak diren fundazioko zuzendaritza eta kontrolerako ahalmenak Patronatuaren ardura izango dira. Zehatzago esanda, fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratu behar ditu.

10. Artikulua- Osaera eta iraupena

Hasiera batean, Patronatua Fundatzaileek izendutako pertsonen osatuko dute.

Karta Fundazionalaren ezarpenaren iraupena bukatzen (hau da 12 hilabete) Patronatu kideak izateari baietz esango duten Fundatzaile eta abakituak izango dira.

Inolaz ere Patronatua 3 kide baino gutxiago ezingo du izan.


Patronatu kidea pertsona juridikoa den kasuetan, honek pertsona fisiko bat izendatuko du bere ordezkapena burutzeko.

11. Artikulua- Nagusiak izendatzea eta hutsik dauden lanpostuak betetzea

Gobernu-organoko kideak ordezkatzeko badira, jarduera uzten badute eta zereginak kentzen bazaizkie, Fundazioen Erregistroan adierazi behar da.

12. Artikulua- Doakotasuna

Patronatuko kideek euren kargua dohainik bete behar dute. Hala ere, beren zereginak betetzeagatik behar



bezala justifikatu ditzaketen gastuen dirua itzuli daiteke.

13. Artikulua- Fundazioko Presidentea

Patronatuak Presidentea hautatu behar du bere kideen artean. Presidenteak Patronatua ekimen propioa dela-eta, zein hirugarren alderdiak direla-eta edo Patronatuko kideek eskatuta deitu behar du, Patronatuaren deliberamenduak zuzendu behar ditu eta hitzarmenak aurrera eramane.

Patronatuko Presidenteak aipatutako gobernu-organismoaren ordezkaritza gorena du eta, aipatu organismoaren kideen berezko ahalmenez eta Estatutu honetan esleitutako ahalmenez gainera, Fundazioaren ordezkaritza lanak egin behar ditu. Ordezkaritza lanak honako egoeratan egin behar ditu: Patronatuarekin eta Fundazioaren bestelako organismoekin egindako hitzarmenetatik eratorritzen diren ekintza eta kontratuak eta baita aurkeztu dituzten auzi, trosten, administrazio-gai, gobernu- gai, epailearen gai eta epai-kanpoko gaietan; Presidenteak, aipatutako helburuarekin, Biltzarkide edo Abokatuen aldeko auzietarako botere orokorrak emateko ahalmena du.

14. Artikulua- Presidenteordea

Patronatuak Presidenteordea hautatu du bere kideen artean

Presidentea ez dagoenean ala gaixo dagoenean, Presidenteordea izango da haren ordezkari; egoera horiek egiaztatzeko nahikoa da adierazte hutsarekin. Presidentea eta Presidenteordea egon ezean, adin handiena duen pertsonak egingo ditu ordezkari lanak.

15. Artikulua- Idazkaria

Patronatuak Idazkaria izendatu du bere kideen artean eta Idazkariak fundazioko administrazio-lanak zuzentzeko, fundazioaren dokumentazioa zaintzeko eta (onartu ostean eta Presidentearen adostasunarekin) Akta-liburuan transkribatutako bilkuren akta egiteko ardura izango du.

16. Artikulua- Diruzaina

Patronatuak, hala baderitzo, Patronatuak esleitzen dizkion zereginak beteko dituen Diruzaina izendatu dezake (kasu horretan ez da beharrezkoa diruzaina bertako kide izatea).

Hona hemen Diruzainari esleitu dakizkiokeen zereginak:

- 1- Fundazioaren funtsak biltzea eta zaintzea.
- 2- Diru-sarrera eta gastuen balantzea aurkeztea eta sinatzea.
- 3- Inbentario-, Kontu-, Aurrekontu-Liburu eta Eguneroko Liburuaren ardura.

17. Artikulua- Fundazioan lan egiten duten pertsonak

Horretaz guztiaz gainera, Patronatuak (Fundazioaren izenean) bestelako jardueren gerentzia edo kudeaketa, edo jardura horiek aurrera eramateko ardura gobernu- organismoaren kideren baten, zein hirugarrenen esku utzi dezake, zeregin horiek aurrera eramatearen truke dagokion ordainsaria emanez.

18. Artikulua- Patronatuaren Eskumenak

Patronatuaren eskumenak Fundazioaren gobernuarekin zerikusia duen guztira hedatzen dira eta, bereziki, honako alderdiak hartzen dituzte barne:

- 1- Fundazioaren norabidea zein den adieraztea, Fundazioaren helburuak hobe betetzeko helburuz.
- 2- Ekonomia- eta finantza-baliabide guztiak administrazioa, horien jatorria edozein dela ere.
- 3- Aurreko ekitaldiko Inbentarioa, Egoeraren Balantzea, Emaizten kontua, Memoria eta aipatutako epeko diru-sarreraren eta gastuen Aurrekontuaren likidazioa.
- 4- Hurrengo ekitaldiko diru-sarreraren eta gastuen Aurrekontua eta horren Azalpen- memoria onartzea.
- 5- Komeni diren barne-araubideko arauak onartzea.
- 6- Ordezko Batzordeak sortzea, horien kideak izendatzea eta horien ahalmenak zein diren zehaztea, eta, hurrengo artikuluan ezartzen denaren arabera, ahalordetze orokorrak edo espezifikak ematea.
- 7- Estatutuen 17. artikuluan aurreikusitakoak betez, zuzendarien, exekutiboaren eta aholkulariak izendatzea, eta beharrezkoak diren gainerako teknikariak, administrazioak, laneko eta menpeko langileak kontratatzea.
- 8- Fundazioaren helburuak era aproposagoan aurrera eramane ahal izateko beharrezkoak diren ekimen eta kontratu mota guztiak formalizatzea eta onestea, horiek zibilak, merkataritza-koak, lanekoak, administrazio-koak edo beste edozein motatakoak direla ere.



P 5745653 C



9- Goi-mailako hitzarmena behar duten gaietarako, dagokion proposamenak eskumena duten erakundeet aurkeztea.

10- Funtzak eta elkarlanerako hitzarmenak ekartzearen bitartez, enpresek, entitateek, erakundeek edo partikularrek elkarlan teknikorako programan eta gaitutako langileen prestakuntzarako programan parte har dezaten sustatzea.

11- Fundazioarentzat komenigarria dela uste duten bakoitzean, eta Protektoratua jakinaren gainean jarri, herentziak, ondareak edo dohaintzak onartzea edo ez onartzea.

12- Fundazioko Estatutuak aldatzea, fundatzailearen nahia hobe betetzeko beharrezkoa denean.

19. Artikulua -Ordezkaritzak, ahalordetzeak eta Ordezko Batzordeak

Patronatuak bere kide baten edo gehiagoren esku utzi ditzake zenbait ahalmen ala ahalmen guztiak; jarraian aipatzen direnak izan ezik: kontuak eta aurrekontuak onartzea, ohiko kudeaketatik kanpo dauden ekimenak edo Protektoratuaren baimena behar duten ekimenak.

Aurreko paragrafoan adierazitako mugak aintzat izanda, Patronatuak Ordezko Batzordeak eta Batzorde Betearazleak sor ditzake, kasu bakoitzean ahalmenak zehaztuz, eta baita ahaldu nagusiak edo bereziak izendatu ere, elkartutako zereginak zein elkartasunezko zereginak dituztela.

Ordezkaritza eta ahalordetze nagusiak (auzietarako direnean izan ezik), eta horien baliogabetzeak Fundazioen Erregistroan idatziz jaso behar dira.

20. Artikulua- Patronatuaren betebeharrak

Fundazioko Patronatuko kideek jarraian aipatzen diren betebeharrak dituzte:

a) Fundazioaren helburuak zehatz-mehatz betetzea eta betearaztea, Legean eta Fundazioko Estatutuetan xedatzen dena errespetatuz.

b) Kudeatzaile on baten ekonomia- eta finantza-irizpideei jarraituz, Fundazioko ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak administratzea eta horien erabateko produktibotasuna mantentzea.

c) Kargua legeko ordezkarari baten ardura betetzea.

21. Artikulua - Debekeatua dago nork bere burua kontratatzea

Patronatuko kideek ezin dute fundazioarekin kontratatu (ez beraien izenean, ez hirugarren baten izenean) Protektoratuaren baimena izan ezean.

22. Artikulua - Erantzukizuna

1- Patronatuko kideek erantzukizuna dute fundazioaren aurrean, betiere Legeak ezartzen duenaren arabera.

2- Hori sortu zuen hitzarmenaren aurka egon zirenek edo hori hartzeko orduan parte hartu ez zuten pertsonak ez dute erantzukizunik izango, jakinaren gainean zeudela eta adostasun eza adierazi ez zutela frogatzen denean izan ezik.


3- Gobernu-organismoek (ohiko jurisdikzioaren aurrean) erantzukizuna eskatzeari lotutako ekimenaren ekitaldia eta dagokion epai imoa Fundazioen Erregistroan idatziz jaso behar dira.

4- Protektoratuak erantzukizuna eskatzeko ekimen hori aurrera eramanez, ekimen propio gisa edo bidezko interesa duen pertsona batek zentzuzko eskabidea egiten badu. Horretaz gainera, Patronatuko kideen jarduna fundazioaren helburuen aurkakoa edo horientzako kaltegarria denean, fundatzaileak ere aurrera eramanez, ekimen hori.

2. ATALA. PATRONATUAREN FUNTZIONAMENDU-ARAU BIDEA

23. Artikulua- Barne-funtzionamendua

Patronatuak urtero, gutxienez, 6 bilerak egin behar ditu. Urtero, lehen sei hilabeteetan eta Estatutuen 30. artikuluan aurreikusten diren baldintzak betez, aurreko ekitaldiko aurrekontuaren likidazioa, inbentarioa, jardueren Memoria, egoeraren balantzea eta Emaizten kontua onartzeko helburuarekin, ezinbestekoa da Patronatua biltzea. Era berean, dagokion ekitaldia egin ostean, laugarren hiru hilabeteen hurrengo ekitaldiko Aurrekontua onartu behar da, abenduaren 31 baino lehenago Protektoratura igorri ahal izateko.



Patronatuak deialdiak idatziz egin behar ditu, bertan, gobernu-organoko kideen iradokizunak aintzat hartu dituen eta Presidenteak adostu duen Gai-zerrenda adierazi behar da. Deialdia bileraren data baino 10 egun lehenago egin behar da, bilerak presazko gaiekin zerikusia duenean izan ezik, kasu horretan epea 3 egunetara murriztu daiteke eta.

24. Artikulua- Sortzea eta hitzarmenak hartzea

- 1.-Patronatua behar bezala sortzeko, lehen deialdian, era pertsonalean edo ordezkarien bidez, kideen erdia gehi beste kide bat bildu behar dira.
- 2.-Aurreko paragrafoan aipatutako *quorum* elkartu ezean, ordubete geroago Patronatua berriro ere bildu behar da eta, bigarren bilera horretan, nahikoa da edozein kide-kopuru etortzea, betiere gutxienez 3 direnean eta Presidente eta Presidenteorde tituluak daudenean.
- 3.-Aurreko paragrafoetan adierazitakoak bestalde, kide guztiak daudenean eta bilera egitea aho batez onartzen dutenean, Patronatuaren deialdia egin dela eta behar bezala osatuta dagoela esan daiteke.
- 4.-Hitzarmenak egin ahal izateko, ezinbestekoa da botoen gehiengo izatea, jarraian aipatzen den kasuren bat gertatzen denean izan ezik:
 - a.- Aldaketa, fusio eta iraungipen hitzarmenak egiten direnean; kasu horietan Patronatu kideen bi herenak eman behar dute aldeko botoa.
- 5.-Beti ere, eta jarraian aipatzen diren kasuetan, Patronatuaren erabakiak baliokoak izan daitezkeen Patronatukideen bi herenaren presentzia beharrezkoa izango da:
 - a.-Estrategi Planaren ezarpena, eta honen moldizaketak.
 - b.-Urteko Gestio Planaren definizioa
 - c.-Urteko aurrekontua, kontuak eta inbertsioen onarpena.
 - d.-Karta fundazional honen 18. Artikuluko 7. eta 8. ataletan adierazita dauden ahalmenak burutzeko.
- 6.-Berdinketarik gertatzen bada, Presidentearen botoa erabakigarria izango da.
- 7.-Idazkariak Patronatuak egiten dituen bilera guztietan Akta egin behar du; bertan, bileraren lekua eta eguna adierazteaz gainera, bilerara joan diren pertsonak, deliberamenduen xede diren gaiak eta hartutako hitzarmenen edukia adierazi behar dira.

III. IDAZPURUA. ONDAREA ETA ARAUBIDE EKONOMIKOA

I. ATALA. OSAERA, ADMINISTRAZIOA ETA ZAIINTZA

25. Artikulua- Fundazioaren Ondarea

Fundazioaren Ondarea ekonomikoki baloratu daitezkeen ondasun eta eskubideek osatu dezakete.

Fundazioa, erabakiak hartzeko eta administratzeko orduan, aplikatu daitezkeen arauetara moldatu behar da eta emaitzak edo errentak helburu propioetara zuzendu behar ditu; hori guztia Estatutuak errespetatuz egin behar du.

26. Artikulua- Baliabideak

Fundazioaren ondarea jarraian aipatzen diren puntuek osatzen dute:

- a)Hasierako diru-kopurua, diru kopuru hau 90.000€ takoa da eta eskritura honi erantzita doan ziurtagiriaren bitartez egiaztatzen da.
- b) Kide fundatzaileen (eta abikitako kideen) ohiko eta ohiz kanpoko ekarpenak eta kuotak, eta Patronatuko kideek boluntarioki eman nahi dituzten ohiko eta ohiz kanpoko kuota eta ekarpenak.
- c) Zuzenbidean onartzen diren bideen bitartez lortzen duen bestelako ondasun edo eskubideak, bereziki beste pertsona, erakunde edo entitateek emandako ondareak, dohaintzak, ekarpenak eta diru-laguntzak. Dohaintzak, ondare eta herentziak onartzen badira, Patronatuari horren berri eman behar zaio.
- d) Fundazioaren ondarearen edo Fundazioak egindako jardueraren emaitzak edo errentak, produktuak edo etekinak eta baita, indarrean dagoen legediaren arabera, ematen dituen zerbitzuen ordainketak ere.
- e) Aplikatu daitezkeen lege-esparruko beste edozein baliabide.

27. Artikulua- Ondarea aldatzea



P 5745652 C



JUSTIZIA, LAN ETA
GIZARTE SEGURANTZA SAILA
Euskal Herriko Fundazioen Erregistroa
DEPARTAMENTO DE JUSTICIA,
EMPLEO Y SEGURIDAD SOCIAL
Registro de Fundaciones del País Vasco

Fundazioaren patronatuak, uneoro eta behar adina bider eta aukera ekonomikoak gomendatzen dituzten erabakiak, araberak, fundazioaren kapitalean aldaketak, eraldaketak edo bihurtzea egin ditzake, ondarearen balio izendatua berbera bada ere, ondarearen balio eraginkorra edo erosteko ahalmena murriztu dadin ekiditeko asmoz.

28. Artikulua- Fundazioaren Ondarea zaintzea

Hona hemen ondarea zaintzeko eta babesteko aintzat izan behar diren arauak:

- Fundazioaren ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideak fundazioaren izenean egon behar dira eta bete Inbentarioa izan behar dute eta, hala dagokionean, dagokien Erregistroetan idatziz jaso behar dira.
- Ondasun higiezinak eta/edo benetako eskubideak Jabetza-Erregistroan jaso behar dira, Fundazioaren izenean. Izena eman beharreko gainerako ondasunak dagokien erregistroetan jasota egon behar dira.
- Fundazioa titulartzat duten balioak eta esku-dirua, jabetza-tituluak, gordailuen agiriak eta jabari, jabetza, erabilera, gozatzea edo beste edozein eskubide egiaztatzeko dokumentuak Fundazioaren izenean gorde behar dira, Patronatuak hautatzen duen entitatean.
- Gainerako ondasun higigariak Patronatuak zehazten duen eran zaindu behar dira.

Ondasun edo eskubide horiek guztiak Inbentario-Liburuan zehaztu behar dira; liburuaren arduraduna Patronatuko Idazkaria izango da eta bertan (idazkariaren berriak direnekin) ondasun edo eskubideak zein diren jakiteko eta horiek deskribatzeko beharrezkoak diren baidintzak idatziz jaso behar dira.

II. ATALA. ARAUBIDE EKONOMIKOA.

29. Artikulua- Ekitaldi ekonomikoa

Ekitaldi ekonomikoa urtekoa izan behar da eta urte naturalarekin bat etorri behar da.

Ekitaldi ekonomiko bakoitzean, Fundazioak ohiko aurrekontua egin behar du, diru-sarrerak eta gastuak orekaz jasotzen dituen.

Aurrekontu hori, Azalpen-memoriarekin batera, Protektoratuaren aurrean aurkeztu behar da, onartzen den urtearen azken hiruhilabetekoan, hain zuzen ere.

30. Artikulua- Ekonomia eta kontularitza betebeharrak

Patronatuak fundazioaren helburuak eta lege-aginduak ezagutzera emateko eta horiek bete daitezkeen justifikatzeko beharrezko diren elementuak egin behar ditu: Inbentarioa, egoeraren balantzea eta emaitzen kontua (bertan fundazioaren ondarearen, ekonomiaren eta finantzen egoera islatu behar da), eta urtean aurrera eramandako jardueren eta ondarearen kudeaketa ekonomikoaren memoria. Horretaz gainera, aurreko urteko diru-sarrera eta gastuen aurrekontuaren likidazioa egin behar du, horretarako Legeak ezartzen dituen xedapenak betez.


31. Artikulua- Kontuak ematea

Fundazioen Legearen 27. artikuluan ezarritakoa errespetatuz, patronatuak, urte bakoitzeko lehen sei hilabeteen barruan, egindako kudeaketa fundazioaren helburuentzako egokia dela defendatu behar du Protektoratuaren aurrean.

III. ATALA. BALIABIDEAK FUNDAZIOAREN HELBURUETARA APLIKATZEKO ARAUAK

32. Artikulua- Diru-sarreraren erabilera eta administrazioko gastuak

- Fundazioaren ondasunak eta errentak fundazioaren helburuetara era zuzen eta berehalakoan esleitu daude.
- Aldizka, fundazioak bere helburuak lortzeko jarduerak programatu behar ditu eta, helburu horrekin, zerbitzuak urtero planifikatu behar dira eta horiek egiteko eta esleitzeko era hitzartu behar da.
- Edozein kontzepturekin lortzen diren errenta garbien eta bestelako diru-sarreraren % 70 (dagokien zergak kendu ostean) gubxienez erabili behar da (jaso eta handik hiru urtera, gehienez) fundazioaren helburuak



lortzeko.-

Fundazioa sortzeko unean zein geroago, ondare homiketa kontzeptuarekin jasotako ekarpenen kasuan, ez da baldintza hori bete behar.

Indarrean dauden lege eta araudietako xedapenek ezartzen dutenaren arabera, eta Fundazioaren eskabide arrazoituaren bidez Protektoratuak espresuki emandako baimena izan ezean, gainerako diru-sarrerak fundazioaren diru-kopurua handitzeko erabili behar dira (%20tik gorakoak izan ez daitezkeen administrazioko gastuak kendu ostean).

IV. IDAZPURUA. ALDATZEA, FUSIOA ETA DESAGERTZEA.

33. Artikulua- Aldatzea

1.-Fundazioaren helburuak hobe betetzeko komenigarria den bakoitzean, fundazioaren Patronatuak Estatutuak alda daitezzen sustatu dezake. Estatutuak aldatzeko hitzarmena egin ahal izateko, gutxienez, patronatua osatzen duten kideen bi herenen aldeko botoa izan behar da.

2.-Jarraian aipatzen diren estatutu honen atalak, FUNDATZAILEEN nahia haxe delako, ezingo dira inolaz ere aldatu, kendu edo moldezatu :

Hirugarren Artikuluko lehen atal osoa eta bigarren ataleko f eta g puntuak.

3.-Fundazio hau eratzen denetik aurrera, Euskal Gizartearen ematen diren aldaketengatik, Fundazioaren xedea, artikuluko honen bigarren atalean aipatzen diren puntuak aldatu barik burutu ezina balitz, Fundazioa desagerraraziko da.

34. Artikulua- Fusioa

Fundazioaren helburuari behar adina arreta eskaintzen zaion heinean, Patronatuak beste entitateekin fusionatzeko hitzarmena egin dezake. Hitzarmena egin ahal izateko, gutxienez, patronatua osatzen duten kideen bi herenen aldeko botoa izan behar da.

35. Artikulua- Desagertzea

Fundazioa honako arrazoiak direla-eta desagertuko da:

1- Patronatuak, kide guztien adostasunez, hala erabakitzen duenean edo, adostasunik ez dagoenean ere, eta nagusien bajak direla-eta 3 baina gutxiago geratzen direnean.

2- Kode Zibileko 39. artikuluan edo bestelako Legeetan aurreikusten diren arrazoiertako bat gertatzen denean.

3- Fusioaren ondorioz hori gertatzen denean.

4- Epailearen erabaki irmoak indargabetzen duenean.

5.-33. Artikuluko 3. atalean aipatzen den egoera ematen bada

36. Artikulua- Desagertzeko prozedura

Aurreko artikuluko 1., 2. eta 5. ataletan aurreikusitako kasuetan, fundazioa desagertzeko beharrezkoak dira Patronatuaren adostasuna eta Protektoratuaren berrespena.

Fundazioa desagertzeko hitzarmena arrazoitua izan behar da eta ondarearen eta likidazio-programaren egoera adierazi behar da.

Gobernu-organoaren hitzarmena ez dagoenean, edo Protektoratuak hitzarmena berresten ez duenean, Fundazioa desagertzeko beharrezkoa da epailearen erabaki arrazoitua egotea; erabaki hori Protektoratuak zein Fundazioako Organoak eskatu dezakete.

Desagertzeko hitzarmena edo, hala dagokionean, epailearen erabaki arrazoitua Fundazioen Erregistroan jaso behar dira.

37. Artikulua- Likidazioa

Fundazioaren likidazioaren ondorioz sortzen diren ondasun eta eskubideak (fundazioaren eskutitzean adierazitako fundatzailearen nahari jarraituz) Patronatuak, bere xedea Munduko eta bereziki Europako



P 5745651 C



hizkuntza gutxiak defendatu eta zabaltzea den interes orokorreko entitate bati emango dio. Entitate hori meritu lehiaketa bat zabaltzeko helburuz osatuko den batzorde batek Patronatuari aurkeztuko dion hirukote batetik aukeratu du Patronatuak.

Karta Fundazional hau ematen denean aurreikusi ezinezko arrazoiak direla medio, Patronatuak aipatutako batzordea izendatuko ez balu, edo batzordeak meritu nahiko adierazten duen entitatek topatuko ez balu, edo egozda ere patronatuak adostasuna lortuko ez balu, Protektortuak erabakiko du antzeko helburuak duten entitateen artean, beti ere, hizkuntza gutxituen defentsan jarduten diren entitateei lehentasuna emanik.

V. IDAZPURUA. PROTEKTURATUARI ETA FUNDAZIOEN ERREGISTROARI BURUZKOA

38. Artikulua- Protektortuari buruzkoa

Indarrean dauden Legeetan aurreikusten denari jarraituz, Fundazio hau Protektortuaren zaintza, aholkularitza eta kontrolaren menpe dago.

39. Artikulua- Fundazioen Erregistroari buruzkoa

Fundazio hau osatzen denean, eta legez hala behar duten gainerako ekintza edo negozio juridikoak, Legearen arabera eskuduna den Fundazioen Erregistroan idatziz jaso behar dira.

I. ERANSKINA

VI. IDAZPURUA. FUNDAZIOAREN LAGUNTZAILEEN ARAUBIDE EKONOMIKOA

40. Artikulua- Atxikitako fundatzaileak

Karta Fundazionala izaera duen eraketa eskritura notario aurrean eman ostean, bestelako pertsona fisiko edo juridikoek fundatzaile gisa atxikitzeko aukera dute, betiere, atxikipena notario aurrean zin egin zen unetik hasi eta hamabi hilabete barruan egiten denean.

Fundatzaile izaera duten atxikimenduak, aldeztu aurretik ezarritako epearen barruan, fundatzaileak edo, hurrengo paragrafoan aurreikusten denaren arabera, ahalmena duten Patronatuko kideek onartu behar dituzte; pertsona horiek berak izan behar dira atxikitako fundatzaile izan nahi dutenek egin behar duten kontribuzio ekonomikoaren zenbatekoa ezartzen dutenak.


41. Artikulua- Atxikitako laguntzaileak

Fundazioaren Eskritura eman ostean, beren jarduera edo kontribuzioaren bitartez fundazioaren helburuak lortzen lagundu dezaketen pertsona fisiko edo juridikoak fundaziora atxiki daitezke, atxikitako laguntzaile gisa.

Aipatutako izaera duten atxikitzeko eskakizunak Patronatuko kideen gehiengo absolutuak onartu behar ditu, eta Patronatua bera izan behar da laguntzaile izan nahi dutenek egin behar duten kontribuzio ekonomikoaren zenbatekoa ezartzen duena.

42. Artikulua- Ohorezko laguntzaileak

Fundazioaren helburuak lortzeko era aipagarrian laguntzen duten edo lagundu duten pertsona fisiko edo juridikoak "ohorezko laguntzaile" izendapena jaso dezakete Patronatuaren eskutik.



2006ko AURREKONTUA

GASTUAK

194.800,00 €

FUNTZIONAMENDUA 31.000,00 €

Soldadak 10.000,00 €

Idazkaritza

10.000,00 €

Materialak 9.500,00 €

Irudi korporatiboa 5.000,00 €

Bidalak eta dietak 1.500,00 €

Patronatua 5.000,00 €

ONURADUNAK 163.800,00 €

GIZARTE EKINTZAK 65.000,00 €

Enplegu behatokia

50.000,00 €

Hezkuntza promozioa

15.000,00 €

Merkatu ikerketak 98.800,00 €

Enplegua eta euskara

48.800,00 €

Irakaskuntza zentroa

50.000,00 €

SARRERAK

197.962,00 €

Partaide 90.000,00 €

Fundatzaileak 50.962,00 €

Laguntzaileak 12.000,00 €

Zerbitzuak 45.000,00 €

Aldea 3.162,00 €

ZEREGINAK ETA AURREKONTUAREN AZALPENA

2006 EKITALDAIREN ZEREGINAK bi motakoak izango dira:

BARNE ERAKETA:

Fundazioa, berri eratuta dago eta lehendabizi bere barne egituraren osaketaz jardungo da. Horretarako 4 lan batzorde izendatzen ditu, eta Lan Batzorde hauen zereginak beteko dituzte lehenengo urte honen zeregin nagusia.

Batzorde hauekin batera, patronatuak entitatearen irudi korporatiboa landuko du. Eta Fundazioa publikoki ezaguna izango den bere esku dauden ekintzak burutuko ditu.

Zerekin honetarako 21.000 eurotako aurrekontua izango du.

Honekin batera, batzordeen lanen jarraipena egiteko eta patronatuaren zereginetan karguei laguntza emango dien pertsona bat kontratatuko du. Pertsona honen kontratazio unerik egokiena eta bere dedikazioa zentzuz



P 5745650 C



aztertuko du patronatuak. Postu hau betetzeko 10.000 Eurotako aurrekontu bat ezartzen da.

KANPORA BEGIRAKO EKINTZAK

Karta Fundazionalak ezartzen dituen ekintzak bideratzeko eta patronatuak erabakitakoaren arabera 4 lan batzorde osatuko dira. Batzorde hauek ondokoak izango dira:

- 1.-Bilboko Udalarekin Harremanak
- 2.-Beste erakunde batzuekin harremanak
- 3.-Irakaskuntza kooperatiba bultzatzeko batzordea
- 4.-Enpleguaren behatokia

Batzorde hauek, patronatuaren aginduz, zeregin bakoitzean Fundazioaren onura jasoko duten pertsona edo entitateak proposatuko diote patronatuari. Bere zeregina betetzeko eta beharra ikusten duten tokietan bere ekarpena egiteko 4 aurrekontu atalekin kontatuko dute.

4 atal hauek honela izendatzen dira


Enplegu behatokia
Hezkuntza promozioa
Enplegua eta euskara
Irakaskuntza zentroa

eta lauren artean 163.800 eurotako aurrekontuan oinarrituko dituzte haien konpromisoak.

Goian agertzen den aurrekontuan, bakoitzarentzako kantitate batzuk agertzen dira, patronatuaren iritzia arabera, kantitate hauek honela edo beste era batera banandu ahal izango dira. Ala ere, 4ren artean ezingo dute aurrekontuan agertzen den baino kantitate gehiago dedikatu, sarreretan aurrekontuan agertzen den baino kantitate handiagoak lortzen ez badira, aipatzen diren iturrietatik edo beste ezberdinetatik.

Aurrekontu honi aurre egiteko, Fundazioak sarrera batzuk ditu aurreikusita. Sarrera hauek honela banandu eta azaltzen dira:

Partaide: Partaidetza Sozialeko Ikastolen Elkarteak, Elkartasun Kutxaren bitartez urtero proiektu berriak sustatzeko diru kopuru batzuk ezartzen ditu. Ikastolen zereginen artean lanbide Heziketa euskaraz bultzatu eta sustatzea du helburu. Hau dela eta hurrengo urteetan urtero harrobia Fundazioaren eskuetan diru kopuru batzuk jarriko ditu. 2006 urterako 90.000 euro izango dira.



Estatutuen 26. artikuluko b atalean Fundatzaileek urtero diru kopru bat jarriko dū. Fundatzaileak nortzuk diren arabera, eta hauek egin beharreko diru ekarpenak kontuan hartuta, 2006. urteari dagokionean 50.962 euro jarriko dituzte.

Harrobia fundazioak, bere zereginen parte har dezaken edozein elkartearekin elkar laguntzeko lanak burutuko ditu. Hau dela eta aurre konpromiso batzuk hartu ditu 2006. urtean zehar burutuko direnak.

Hau dela eta 2 sarrera bide izango ditu:

Berarekin batera, enplegu behatoki bat martxan jartzeko eta behatoki honen bitartez landuko diren zerbitzuak eskainiz. Hau dela eta 57.000 euroetako sarrerak aurreikusten dira.